


Getxo >MEETING<



Getxo MEETINGen laburpena **Martxoaren 16an Networking bat egin genuen Getxo Sormen Huben.**

Martxoaren 16an eszenatoki aldaketa bat izan genuen. Getxo MEETINGen ohiko kokapenetik atera eta Getxo Sormen Hubera joan ginen, kulturaren sorkuntzan espezializatutako coworking-gunera. Dinamika desberdinak egin genituen elkar ezagutzeko, ideiak partekatzeko eta ideia berriak asmatzeko.

Topaketa horretatik motibazioa, kontaktuak eta konexioak lortuta atera ginen. Eta bizi izandakoaz gogoeta eginez, honako honetaz guztiaz ohartu gara:

- Enpresa propioa duen pertsona orok beste enpresa batekin lan egin dezake. Egia esan, lanbideek uste baino lotura handiagoa dute.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



- Garrantzitsua da jendea ezagutzea, isolamendutik ateratzea. Beti pertsona berberekin harremanetan jartzea eroso izan daiteke, baina, epe luzean, isolatu egiten zaitu eta proiektu interesgarriagoak egiteko aukerak murrizten dizkizu.
- Eremu desberdinetako bi enpresa lankidetzan aritu daitezke enpresa edo erakunde publiko baterako proiektu bat egiteko. Zergatik jarri beti harremanetan zure eremuko jendearekin, aukerak sektoreen arteko elkarreraginean badaude?
- Orain zure aurrean duzun pertsonarekiko lotura posiblea ikusten ez baduzu ere, elkarlanerako garrantzitsuena konfiantza eta helburu komunak dira.

Ondo dator aldiro ohiko testuingurutik ateratzea. Gure lanak antzeko agertokietan egotera garamatza; beraz, lekuz aldatzeak testuinguru berrietara zabaltzeko aukera ematen digu.

Ikusten duzunez, Getxo MEETING gero eta desberdinagoa da eta gune aproposa da bestelako pertsonekin elkartzeko. Laster arte!

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>



Jarrai gaitzazu: / Síguenos en: